

IL AZALPEN PROBA • <i>Narrazio guztiak 1-13</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** horko zatietako BAT: aurkeztu obra, idazlea, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Heldu zirenean pintatzen ari zen, jagoitik Su-Taoren bihozkadetan hutsunea sumatu eta negarra begietara. Alabaren gorpua odoletan erakutsi zioten eta odol gorri hartan bustirik margotu zuen hegan zihuan txori baten papoa, eta oskorria ere. Gero, Enperadoreari eskatu zion ea utziko zionentz hilobi bat margotzen, eta Hung-Wuk ez zuen ezetzik ere esan.

Izan al daiteke tristeagoa istorio hau? Amaiera zoriontsua zenuke laketago, badakit, bidaiaria. Baina egin al daiteke atzera gertaeratik, gibeleratu al daiteke bidaian, denboran? Ching-Fu hilobi bat pintatzen hasi zen koadroan, zeinean ilunabarrean landa bat ikusten baitzen, eta oihanerantz sartzen zen bidexka bat.

* * *

–Arrazoi bat izan diat etortzeko. Eni buruzko ipuin bat gogoan duala enteratu nauk eta, goazen berak agindu orduko, esan zioat ene buruari, eta azaltzerakoan poema eder bat errezitatuko diat.

* * *

igande arratsalde batean trenera igan da mutila. inora bezala, aldizka leihora eta aldizka barruko aldera begira dago, bagoiaren bestaldean neskata beltzaran bat ikusi duenean, bera bezala leihoaren kontra eserita. une batez gurutzatu dira bien begiak. gero, trena gelditzean, neskata arin irten da, une batez estazio beltzean galtzera, eta mutilak, haren atzetik korrika joan arren, ezin du inguruko karrika ugarietan aurkitu.

IL AZALPEN PROBA • <i>Narrazio guztiak 1-13</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** horko zatietako BAT: aurkeztu obra, idazlea, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Zenbat ordu paperak zirriborratzen, zenbat sentimendu nabardura ikerturik, zenbat istorio izkiriaturik. Elur malutak bailiren bildu ditu gauzak, eta ez daki orain eskuetan duen elursorta nora jaurti. Oroitzapen dira jadanik behialako desirak. Ailegatu da ezkurdira eta, urmael bare eta lorategi urrien artean, ohizko aulkirantza doa urrats geldoz. Adinagatik agian, akiduraren arantza senditzen du gerritik behatzetaraino. Ez dago beste inor ezkurdiko bakardadean.

* * *

Herri barrenera iristean, kaiaren aurrean, kristalezko leihoak dituen ostatura sartu naiz, ostatu zahar eta ilun batera. Zurezko mahai dastatu batean bakarrik eseria, bilatu dut gizona, bizar zuri eta azal zimurtua. Ez da hona arrotzik usu sartzen, seguru asko, ezen berehala ezagutu nau, eta bere mahaiaren eseritzera gonbidatu.

* * *

Marrastu ditu inoiz bien bihotzak gezi batez lotuak pagoren baten azalean; gainerako pagoak dira, mutu etaitsuak, bere sekretuaren lekuko bakarrak. Enbor eta arramak biltzen ari delarik, brisara hozkirria sentitzen du arnasan eta, pagaditik ibar zuria eta ortzi urdina so egitean, morroi bilakaturiko bufoiaren begiak grisak dira, antzara biren modukoak.

IL AZALPEN PROBA • <i>Narrazio guztiak 1-13</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** horko zatietako BAT: aurkeztu obra, idazlea, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Egun batzuk geroago, bada, bidaiari abiatu nintzen arropa zahar eta urritzezko makilarekin. Erromes maskor bat ere baneraman, emaileak Galiziako azken hondartzan hartua zela erran baitzidan, eta azabatxe harritxo beltz bat, bidaiariak babesten omen dituelako, armeniar merkataria bati erosita. Abiatu eta ibili nintzen, arte indartsuak eta iratze zabalak, erreka gardenak, mihura eta erabelarrak iragan nituen. Lehen gauean ez nintzen lotarako ere gelditu, aurrera segitu nuen ene bidaiari, malkar eta ubide zaitetan barrena.

* * *

Ni bakarrik geratzen naiz. Liburuak begiratzen ditut, zaharrak eta hautsezatuak. Gero, hormako fraide tipia dut begiratzen, abar bat duela eskuan. Altxatu egiten dut belea eta belea ere fraidea begiratzen du, kristalezkoak, begiak hertsita gabe. Hauts bustiaren usaina dago gelan.

* * *

Ahots zurixkaz mintzo da, hotzagatik, zure adats beltzaren gau hedeetan etzanean naiz. Halan segitzen du, maiatzeko gerizen gisakoak zure ezpainak, baina ez dira uztaierako ustelduko.

Zilegi bekit une honetan, narradore gisa, gogoeta bat eranstea, hau da, maitemintzea degradazio mota bat dela abertitzea. Ez da ahaztu behar, gainera, maitemintzea zorionaren eta angustiaren infinitoan hondatzen denez, egoera horretan gauzarik gorenak bezala baldarrenak ere izkiria ditzakeela. Baina segi dezadan haria.